

HAUSNARKETA-OTOITZA: “Bestelako bizimodua”

1.- SARRERA:

Benedikto XVI.ak behin eta berrero esan eban Caritas in veritate bere entziklikan gaur egungo gizarteak ezinbestekoa daukala bere bizimodua aztertzea, munduko makina bat lekutan hedonismo eta kontsumismorako joera daualako, horrek dakarzan kalteak kontuan hartu barik. Pentsamoldez aldatu behar dogu, eta eraginkortasunez aldatu be, bizitza, ekoizpen eta kontsumo eredu barriak geure egiteko.

2.- BIDEO: <https://www.youtube.com/watch?v=rnmtVbmWTKc>

3.-HAUSNARKETARAKO:

Kontsumo arduratsua

Kontsumo arduratsuaren abiapuntu gisa gure beharrak birpentsatu behar dira, haiek asetzen ditugunean gizarte jasangarri eta justu bat sor dezagun gure erabakitzeko ahalmena baliatuta, eta harremanak eraldatzen dituzten eta ekoizteko, banatzeko, kontsumitzeko eta hondakinak kudeatzeko beste eredu batzuk garatu behar dira, alde batera utzita eredu ekonomiko hegemoniko kapitalista, patriarkala, kolonialista eta, oro har, arauzkoak ez diren identitateekiko edo bizimoduekiko diskriminatzailea.

Hala, kontsumo arduratsuak berekin dakartza zenbait jardunbide diferentzial maila pertsonalean, harremanen arloan, antolakuntzan eta maila instituzionalean nahiz politikoan, eta aldaketak eragiten ditu egunerokotasuneko dimentsio guztietan: pertsona bakoitzak kontsumitzaile gisa egiten duenean; erakundeek eta instituzioek kontsumitzaile eta ekoizle gisa egiten dutenean; pizgarri, debeku eta abarren bidez bizi-estilo jasangarriak sortuko dituzten testuinguruak sustatzeko politika publikoetan; edo kontsumoaren kultura berri baterako behar diren esparru kulturaletan.

Kontsumo arduratsuaz hitz egiten dugunean bizi-estiloak ere baditugu hizpide; izan ere, kontua ez da marka edo produktu baten ordez beste bat erabiltzea, baizik eta egoki bizitzea planetaren muga biofisikoak errespetatuz, eta, era horretan, eguneroko jardunbideak eta balioak bateratuz.

Eraldaketaren aldeko apustua egiteko aukera ematen duten kontsumo-arloak hainbat dira: ura, energia, elikadura, kultura eta aisia, garraioa, teknologia, arropa eta osagarriak, finantzak, higiena eta kosmetika, etxebizitza, etab. Ohiturak eta gizartean kontsumoaren inguruan eraiki den guztia zalantzan jarri behar dira, eta horretarako, trebetasun eta ezagutza berriak garatu behar dira. Kontsumoa benetan arduratsua izan dadin, zereginak zuzen banatu behar dira eta, aukera zehatzak testuinguruaren mende dauden arren, gutxiago kontsumitu, gure inpaktua murriztu eta gertuko harremanak areagotu behar dira.

Ilaburbilduz, funtsezko bi oinarri har ditzakegu kontsumo arduratsu eta eraldatzaile bat garatzeko: bizitzaren jasangarritasuna, ingurumenari eta zainketei dagokienez, eta justizia soziala, kontuan hartuta ekitatea, elkartasuna, demokratizazioa eta birbanaketa.

GALDERAK:

Benetan behar duguna erosten dugu? Gure kontsumoa eta haren ondorioak aztertzen ditugu? Gure kristau-izaeratik abiatuta, zer aldatu beharko genuke gure bizi-estiloan?

4.-BANATZEAREN ZEINUA:

Altxatu eta itzi zure aurrean zeure ondasunetako bat, bizimoduz aldatzeko asmoaren sinbolo lez.

5.-OTOITZA:

EBANJELIOA: Mateo 6, 25-26

«Horregaitik dinotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jan edo edango, edota gorputza zerez jantziko. Ez ete da bizia janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begiratu aireko hegaztiei: ez dabe ereiten, ez uztarik batzen, ez mandioan metatzen; halanda be, zeruko zuen Aitak janaritzen ditu. Ez ete dozue horeek baino askoz gehiago balio zuek?».

Aldatu gaitetzala, Jauna, munduari, bizitzari, gizakiei zeure begiez eta zeure bihotzetik begiratzeko.

Sendatu bidelagunen, gure munduan, eguzki beraren pean bizi diranen atsekabe eta sufrimentua ikustea galarazoten deuskuen itsukeriak. Astindu gure bihotza, Barri Onaz eta Erreinuaren Itxaropenaz betetako begiez ikusten ikasi daigun.

Kendu estalkia gure begietatik, ikusi daigun eta besteez hunkitu gaitzean eta bihotzez jokatu daigun, bideertzetan jausita eta apurtuta dagozanei eskua luzatzeko eta bizitza osoa emoteko.

Lagundu, Jauna, ikusten eta aldatzen... Zu ikusten eta aukeratzen... emon zeunskun begirada barriaz, Ebanjelioaren begiradaz, begiratzen, zure Jainko begiez ikusteko, zure bihotz errukitsuaz sentitzeko, zure Espirituaren indarraz jarduteko, hemen, lurrean, agindutako Erreinuaren mundu barria gauzatzeko. Amen.